



Tourra 91



Indurain

Txapeldun

Indurainek lidergoari eutsi eta gainerantzekoek etsi egin dute


MACON

Bakarkako eta taldekako kirolen arteko muga egiten du txirrindularitzak. Gaur amaituko den Tourra ikusi besterik ez dago, horretaz jabetzeko. Indurain izan da indartsuena, Pariseko podiumean maila gorenera igoko den korredorea, baina horretarako erabakiorra izan da Banesto taldearen lana. Agian behar baino beranduago, baina Etxabarriren aginduetara Tourra irabazteko aukera izan du Indurainek. Eta estrainekoa balekoa izan da Atarrabiakoarentzat, klase eta indar erakustaldia eskainiz. Banestoko korredore guztiek leher egin arte babestu dute ordea liderra, eta garaipenerako bidea izugarri erraztu diote.

Tourrean Banestoko liderra berak izan behar zuela frogatu beharra izan du ordea Indurainek, karreraren azken urteetan Delgadoren itzalpean ibili izan da nafarra Frantziako Itzulian. Eta aurten ere horren arriskua begibistakoa zen, Aleconeko erlojupeko luzea Indurainek eztanda egin ondoren ere. 73 kilometroko erlojupekoa irabazi eta sailkapen orokorreko laugarren posturaino igo arren, Delgado hamabigarren postuan agertzen zen, eta Pirinioak eta Alpeak oraindik pasatzeko, Indurain-Delgado tandem buruan biraka zebilkion Etxabarri. Bernard bostgarren postuan izan arren, argi zegoen frantziarrak ez zuela lidergoa eskuratzeko aukerarik, beste biek nabarmen hutsegia ezean.

Piriniotan irauli zuen ordura arteko harremana Indurainek. Eta Delgadoren gregario finena izandakoa segoviarren lider bihurtu zen Val Louronen. Chiappucci lagun, ihesaldi bikaina egin eta Tourreko mailot horia jantzi zuen Atarrabiakoak, aspaldiko ametsa betez.

Parisera garaile sartzeara urrun ikusten zuen oraindik, baina paro-



ERRELEBOA hartu dio Indurainek

Tour'89 eta Tour'91ko irabazleari. Aurten ere Greg Lemond faborito nagusia azaltzen zen irteeran, baina estatubatuarrak pott egin du mendian eta oso atzera geratu da sailkapen orokorrean. 64ko belaunaldiak

rama ez zen txarra, Banestoko gizonik indartsuena zena erakutsia bait zuen. Eta argi zegoen Delgadok, Bernardek eta konpainiak bere mesederako lan egin beharko zutela. Bide erdia baino gehiago behintzat egin zuen.

Handik aurrera, eustea tokatu zaio Induraini. Eta Banestori. Alpeetan batez ere. Kontrol izugarria egin dute Etxabarriren korredoreek, erabatekoa, eta Indurain etsaierik gabe geratu da. Mailot horia jantzi zuenetik larrialdi gutxi izan ditu liderrak, eta

aukera gutxi emango dizkio aurrerantzean Lemond, Delgado, Fignon eta abarrei. Indurain Tourreko Jauna bihurtu da, eta Gianni Bugno izan da nafarrari gehien hurbildu zaiona. Lastima Breukinkek erretiratu beharra izan zuela.

aurreneko saioak ito ondoren, Indurainek aurkariek hura aurreneko postutik botatzeko beste indar ez dutela onartu beharra izan dute. Indurainek eutsi, eta gainerantzekoek etsi egin dute, Tourreko Jaunaren aurrean.

Ohorezko koadroa

Sailkapen orokorra

1. Indurain (Banesto)
2. Bugno (Gatorade)
3. Chiappucci (Carrera)

Mendiko Saria

1. Chiappucci (Carrera)
2. Claveyrolat (RMO)
3. Luc Leblanc (Castorama)

Erregulartasuna

1. Abdoujaparov (Carrera)
2. Jalabert (Toshiba)
3. Ludwig (Panasonic)

Korrikalari gazteena

1. Mejias (Postobon)
2. De Vriest (Bucklee)
3. Krieger (Helvetia)


Taldekako Sailkapena

1. Banesto
2. Castorade
3. R.M.O.

Dortsalak eta liderrak

Greg Lemond (1), Claudio Chiappucci (11), Eric Breukink (31), Marino Lejarreta (41), Gianni Bugno (51), Laurent Fignon (91), Charly Mottet (131) eta Pedro Delgado (31). Dortsalek argi eta garbi erakusten dute talde indartsuenetako 'liderrak' zein ziren Tourra irten aurretik. Miguel Indurain (35) Frantziako Itzulia irabazteko pronostiko guztietan agertzen zen, aukera gehiago ala gutxiagorekin, baina azken urteetan bezalatsu, Etxabarri Delgadoren aldeko apostua egin zuen, ordura arte 'Tour-gizon' ona dela erakutsi bait zuen segoviarrak. Urte osoa gainera horretarako prestatzen eman zuen Pericok. Etxabarri Tourrerako bi lider zituela esana zuen, hala ere.

Karreraren 35 dortsala mailot hori bilakatu du Indurainek, apaltasunez baina Tourreko korredore indartsuena dela erakutsiz. Eta Delgadok nafarrantzat lan egin behar izan duen bitartean —azken urteetan pilatutako 'zorrak' ordaintzeko—, gainerantzekoek etsi egin behar izan dute Indurainen ziurtasunak makurrerazita.



Claudio Chiappucci italiarra izan da Miguel Indurainen «lagun» handiena. Jaca eta Louron arteko etapan bera izan zen Indurainen mesedetan karrera hautsi zuena.

Gianni Bugno izan da azken ordurarte Miguel Indurainen arerio nagusia. Gatoradekoak bakarrik eutsi zion nafarrari Alpe D'Huezeko maldetan.

